

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko maiatzaren 22tik 26rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: IFO



Datuaren analisisia

Alemaniako IFOak bere daturik onena lortu zuen 1991tik, maximoetan dagoen gaur egungo egoeraren pertzepzioak lagunduta. Indizearen aurreikuspenen osagaiak ere hobera egin zuen, eta 2014tik lortzen ez zituen maximoetara iritsi zen. IFOk presidentearen ustez, enpresen gorako berrikuspenak, hala gaur egungo egoera komertzialarena nola negozio aurreikuspenena, bigarren hiruhilekoan hazkunde ekonomikoa % 0,6koa izango dela adierazten du.


Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jardura ekonomikoa duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMIa



Datuaren analisia

Maiatzeko atariko PMIek Alemaniaren jardueraren sendotasuna berretsi zuten, indize konposatua 57,3 puntuetaraino iritsi baitzen (aurreko datua 56,7 eta aurreikusitakoa 56,6). Gainera, fabrikazioaren PMIaren igoerak Zerbitzuen PMIaren beherakada orekatu zuen. Frantzia, PMI konposatua 56,6tik (apirila) 57,6ra (maiatza) igo zen; zerbitzuen osagaiak gora egin zuen eta fabrikazioarenak, berriz, behera. Euroguneari dagokionez, PMI konposatua aurreko hileko mailara (56,8) iritsi zen Europan, zerbitzuen eta manufakturen sektorearen sendotasunaren erakusgarri. Halaber, prezioen eta, batik bat, zerbitzuen osagaien bilakaera oso positiboa izan zen.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erorketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: BPGd

	Est. PIB 1º Trim	Diferencia	1ª Revisión
Total	0,70%	0,50%	1,20%
Consumo privado	0,23%	0,21%	0,44%
Consumo público	-0,30%	0,10%	-0,20%
Inversión	1,62%	0,23%	1,85%
* No residencial	1,12%	0,22%	1,34%
* Residencial	0,50%	0,00%	0,50%
Inventarios	-0,93%	-0,14%	-1,07%
Sector Exterior	0,07%	0,06%	0,13%

Datuaren analisisa

AEBetako BPGd-a urte arteko % 1,2 hazi zen urteko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoko % 2,1etik. Datu hori % 0,7ko hazkundera aurreikusten zuen datu aurreratua baino askoz hobea da. Izan ere, hobekuntza kontsumoaren zein inbertsioaren aldetik etorri baita. Aitzitik, inbentarioek behera egin zuten, ordezkatu behar direnean erakusten baitute etorkizuneko hazkundera handiagoa.

Adierazlearen azalpena



Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialde baten ekoizpena eta hazkundera ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

Diru-politikari dagokionez, FEDek duen jarrerari buruzko informazio zehatza eskaintzen dute FEDen aktek. Informazio hori arretaz aztertzen da, intere-tasen inguruko etorkizuneko erabakien emaitzari buruzko zantzuak aurkitzeko.⁴

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: KPI ETA FABRIKAZIOAREN PMIa



Datuaren analisisia

Markit/Nikkei indizeetan, manufakturen PMIa 52,0ra jaitsi zen maiatzean, apirileko 52,7tik. Bestalde, kontsumoko prezioen indizea (KPI) urte arteko % 0,4 igo zen apirilean; zazpigarren hilabetea alde positiboan. Azpikoaren inflazio-mailari dagokionez, indizea zeroan mantendu zen, bi hilabete negatiboan igaro ondoren. Horiek horrela, gobernuak adierazi zuen ez zirela beharrezkoak ekonomia suspertzeko neurri gehigarriak.

Adierazlearen azalpena

Manufakturen PMIak inkesta bat du oinarri, eta fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beharrezkoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

KPIak etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du. ⁵

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
05/29	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
05/30	Japonia	Langabezia	% 2.8
05/30	Japonia	Hileko xehekako salmentak	-% 0.1
05/30	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	101
05/30	Frantzia	Urte arteko BPGd	% 0.8
05/30	Espainia	Urte arteko KPIa	% 2.1
05/30	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	110.0
05/30	Eurogunea	KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA	-3.3
05/30	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.6
05/30	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	15.0
05/31	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	--
05/31	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6.0
05/31	Txina	Fabrikazioaren PMIa	51.0
05/31	Txina	Ez fabrikazioaren PMIa	--
05/31	Alemania	Urte arteko xehekako salmentak	% 2.2
05/31	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 0.9
05/31	Frantzia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	--
05/31	Alemania	Langabezia-tasa	% 5.7
05/31	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 9.4
05/31	Eurogunea	Urte arteko KPIaren kalkulua	% 1.5
05/31	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
05/31	Estatu Batuak	Chicagoko manufakturen indizea	57.0
05/31	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
06/01	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
06/01	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	50.2
06/01	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	54.9
06/01	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	54.0
06/01	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	59.4
06/01	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	57.0
06/01	Erresuma Batua	Markit UK PMI Manufacturing SA	56.5
06/01	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	180k
06/01	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
06/01	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	54.6
06/02	Japonia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	43.5
06/02	Espainia	Hileko langabezia-tasa	-110.0
06/02	Eurogunea	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 4.5
06/02	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$44.0b
06/02	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 4.4

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Itxiera negatibo samarrak Europan, eta positiboak AEBetan, gorakorretan eta Asian. FEDen akten argitalpena eta LPEEren goi-bilera izan ziren astean merkatuen arreta bereganatu zuten gertakariak. Erreserba Federalaren minuten kasuan, Estatu Batuetako ekaineko interes-tasen igoera aurreratu bazuten ere, etorkizuneko gorako mugimenduen erritmo lasaia goa izan zuten. Balantzearen beherakadari dagokionean, guztien adostasunaz erabaki zen hasierako jaitsiera moderatua izatea, eta gero hiruhileko bakoitzean igotzen joatea. Bestalde, LPEEK 2018ko martxora arte luzatu zituen petrolio gordinaren ekoizpenari ezarritako murrizketak. Hitzarmen hori, baina, ez zen nahikoa izan inbertitzaileentzat, eta petrolioaren prezioaren jaitsiera ekarri zuen. Bada, horren eragina nabarmena izan zen energia sektorean, Atlantikoaren bi aldeetan egin baitzuen behera. Inguru makroari begira, Europako PMLak eta Alemaniako IFOa maximo berrietara iritsi izanak eta AEBetako BPGd-aren gorako berrikuspenak indizeak sustatu zituen. Europaren kasuan, baina, indize askok ez zuten astea positiboan amaitzea lortu. Salbuespen gisa, Ftse britainiarrak etekina atera zion liberaren beherakadari, eta maximo historiko berrietara iritsi zen, AEBetako Nasdaq eta S&P indizeak bezalaxe.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa astean	% Ald. 2017
MSCI WORLD (Local)	1.465,35	1,00	7,41
IBEX 35	10.904,20	0,63	16,60
DJ EURO STOXX 50	3.579,02	-0,22	8,77
DJ STOXX 50	3.228,26	-0,24	7,23
FTSE	7.547,63	1,03	5,67
S&P 500	2.415,82	1,43	7,91
Dow Jones	21.080,28	1,32	6,67
NASDAQ	6.210,19	2,08	15,36
NIKKEI 225	19.686,84	0,49	2,99
MSCI EMERGENTES (Lo	54.066,89	1,59	13,46
MEXBOL	49.674,92	1,24	8,83
BOVESPA	64.085,41	2,31	6,41
SHANGHAI	3.257,06	0,64	0,23
Rusia Rts Moscú	1.073,04	-1,35	-6,88

ERRENTA FINKOIA:

Interes-tasen jaitsiera Europako zor publikoaren merkatuan, baina mugimendu aipagarririk gabe. Madrilen eskaintako hitzaldian, Mario Draghi EBZko presidentek adierazi zuen ez zuela beharrezkoa ikusten gaur egungo diru-politika hedakorra aldatzea. Bestalde, Alemaniako bund-ak eta bere homologo espainiarrak 4 op egin zuten behera, eta Espainia-Alemania spreada 120 oinarrizko puntuetan mantendu zen. AEBetan, interes-tasek 1 eta 2 op bitartean egin zuten gora, eta tasen etorkizuneko igoeren inguruan FEDek agertu zuen zuhurtzia gorabehera, Kredituak hobera egin zuen pixka bat. Aipatzekoa da ere Moody's sozietatearen aldetik Txinako rating subiranoak izan duen jaitsiera.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa astean	2017ko ald.
ALEMANIA 2 URTE	-0,68	-0,01	0,08
ESPAINIA 2 URTE	-0,27	0,01	0,01
AEB 2 URTE	1,29	0,02	0,11
ALEMANIA 10 URTE	0,33	-0,04	0,12
ESPAINIA 10 URTE	1,54	-0,04	0,16
AEB 10 URTE	2,25	0,01	-0,20
ALEMANIA 30 URTE	1,16	-0,05	0,21
ESPAINIA 30 URTE	2,85	-0,04	0,24
AEB 30 URTE	2,91	0,02	-0,15
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	61,52	-1,83	-10,52
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	249,90	-4,13	-38,80

DIBISAK/LEHENGAIK:

Euroa 1,12 dolarretan mantendu zen, eta azarotik lortzen ez zituen maila maximoetara heldu zen. Liberak ahultzera egin zuen BPGd Britainiarraren moteltzearen ondorioz eta ekainaren 8ko hauteskundeetarako boto-asmoaren inguruko inkestaren argitalpenaren ondoren. Izan ere, Theresa Mayren Alderdi Kontserbadoreak Alderdi Laboristarekin daukan aldea murriztu egin baita. Lehengaiak dagokienez, LPEEren aldetik neurri gehiago espero zuten inbertitzaileen etsipenak eraginda, petrolioaren prezioa % 3,02 jaitsi zen, azken bi asteetan % 10,6 igo ondoren.

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
Dolarra / Euroa	1,12	-0,13	5,97
Yena / Euroa	124,47	-0,20	1,16
Libera / Euroa	0,87	1,65	2,23

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% ald. 2017
Petrolio (Brendt)	51,75	-3,02	-6,61
Urrea	1.266,90	0,88	9,95

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.